

• OARSO BIDASOKO •

M8 MONOGRAFIKOA

OSTIRALA, 2025EKO

MARTXOAREN 7A

bidasoa.hitza.eus

oarsoaldea.hitza.eus

947. ZENBAKIA

Saretik, burujabe izatera

1970eko hamarkadaren bukaeran Erreneriako Emakume Taldeak sarea sortu zuen, emakumeak Ipar Euskal Herrira abortatzera laguntzeko · 14-17

Irungo Lakaxitan, espazio segurua izateko bidean, antifaxismoa ardatz · 4-7

Artearen historian emakumeen tokia aztertu du Mari Jose Noainek · 10-12



INAUSELFIAK!

PLAZARA MOZORRATUTA NOLA ATERA ZAREN ERAKUTSI NAHI DIGUZU?

Gorde HITZaren mugikorreko zenbakia, Inauterietan zu edota zure lagunen argazkia edo selfia atera eta sekulako planen zozketan parte hartu!

Argazki galeria bat osatuko dugu jasotako guztiekin

Epea:
otsailaren 27tik
martxoaren
4ra arte, eta
trintxerpetarrek
9ra arte!

 688 77 07 52

HITZakideen artean:

Sunbillako ANGIZ ETXEKO III. ESTUDIOAN

bi gaueko egonaldia
bi pertsonarentzako



Parte hartzaileen artean:

SUNBILLA ESCAPE ROOM

4 pertsonako taldearentzat



• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Oiartzualdeko Hedabideak S.L.ko
kideak:

Oiartzun Irratia
Orratz! Kultur Elkartea
Antxeta Irratia
Bertako Hedabideak
Pausu media
Lau Haizetara
eta Oarsoaldeko beste
53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten
erakundeak.

Udalak: Errearteria, Lezo, Oiartzun,
Pasaia, Hondarribia.



Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produktzio arduraduna:
Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:

Irun kalea 8 behea,
20100 Errearteria-Orereta.

Telefonoa:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Telefonoa:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko,
harpidedun egiteko):

943 30 30 35
harpidetza@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidaso.hitza.eus



77.315 emakume

OARSO BIDASOKO HITZA

Oarsoaldeko nahiz Irun eta Hondarribiko biztanleetatik 77.315 emakumeak dira. Populu osoaren (150.877 herritar) %51,2 dira. Sei herri horietan, denetan, gehiago dira emakumeak gizonak baino. Bihar da Martxoaren 8a. Haien guztien eguna da. Emakumeen Nazioarteko Eguna da. Saretzeko, lortutakoak ospatzeko, ahalegin feministak merezi duela aldarrikatzeko eguna.

Emakume izateagatik gutxietsia, mespretxatua, menperatua, zapaldua edo ez entzuna izateak dakarren frustrazio eta amorrua indarrez eta era kolektiboan kaleratzeko eguna. Morea. More horren tonalitatea edozein dela ere, militante feministen irmotasunetik hasi, gazteenen xalotasunera arte. Baina beti, beti, emakume izatearen harrotasunaren intsigniarekin, borrokatzeak merezi baitu. Maizegi ukatua izan arren genero arrakala badelako oraindik ere gehie-

gitan, baita apurtzeke diren beirazko sabai ugari ere. Ez etsi, mugimendu feminista baita azken urteetan Euskal Herriko jendarte gehien eraldatzen ari dena, ez da dudarik.

Herri guztietan antolatu dituzte Martxoaren 8aren harirako ekitaldiak. Taldeak, elkarteak, eragileak, erakundeak, norbanakoak... Horiiek guztiek egin diote ekarpena egunari (eta biharkoaren aurretik eta ondoren antolatu diren ekintzei), nork bere izaeratik eta egiteko modutik. Baina bada kezka berri bat, berez emakumeek dituzten arrisku, ahulgune eta indargune guztien artean presente: faxismo berria, neofaxismoa.

Europar, eta gurean, jarrera faxistak indartzen ari dira. Haien ideiategian dago urteetako borrokaldiekin irabazitako eskubideen ukazio orokorra, jendarte patriarkalaren egonkortzea eta indartzea. Eskema matxistak betiketzea. Ahots disidentek isilaraztea. Biharkoan behintzat ez dute lortuko helburu horietako bat ere. Etzirako prest izan beharko, ordea. Izan ere, antifaxismoa feminista izango da, edo ez da izango. ■

Segurtasun eredu utopikoan

Lakaxita gaztetxea espazio segurua izateko xedez, egungo protokoloari «antifaxismoa» gehitzeko prozesuari ekin diote. Segurtasun eredu utopikoetan murgildu du asanblada Ara!Gorputzek.

ALAINA ARANBURU ETXEGOIEN

IRUN

Pasa den urtean Lakaxita gaztetxean prozesu bati ekin zioten, gunea denentzat segurua izateko bermeak lantzeko xedez. Lau saio egin zituzten eta Joxemi Zumalabe Fundazioko kideak izan zituzten bidelagun. Prozesuaren bukaeran, erasoan aurrean baliatzeko protokoloa idatzi zuten Lakaxitako kideek. Dena den, espazio segurua bermatzea «etengabeko lana» izan da ordutik, eta protokoloa lantzen urte osoan jarraitu du asanbladak. Hala gogorarazi du Ione Fernandez Zabaleta Ara!Gorputzeko eta prozesua gertutik bizi izan zuen kideak.

Orain, asanbladako kideek beste prozesu bati ekin diote. Honakoan

Ara!Gorputz kooperatiba ari da saioak gidatzen, Bor Bor hausnarketa kolektiborako plaza bidelagun. Fernandez esanetan, «polita» izaten ari da prozesua, «guk daramagulako lidergotza behingoagatik». Dagoeneko aktibatuta dagoen protokoloa fintzen jartzeko lan egin nahi dute, baina «egunerokotasunak aurrera» jarraitzen duenez, eta «gure bizitza prekarizatueta» hausnarketak egiteko tarreak «murrizak» direla uste du Fernandezek. «Hasiera batean ikusi genuen bortxaketen eta eraso sexisten kontura bazegoela eternoki erronka bat, gizartean gertatzen den bezala: matxismoa», zehaztu du Ara!Gorputzeko kideak. Horregatik hasieratik ikusi zuten bazegoela beste «espazio formal batzuk» sortu eta gai horien inguruan hausnartzen jarraitzeko beharra. Espazio hori eskaintzeko proposamena egin zion asanbladari Ara!Gorputzek, eta pasa den astean ekin zioten hiru saioko prozesu berriari: «Lakaxitan seguru egon nahi dugu bertatik modu bizigarri batean borrokatu ahal izateko».

Orain aktibatuta dagoen protokoloa feminismoan oinarrituta dago, eta antifaxismoa txertatzeko beharra identifikatu du Lakaxitak. Izan ere, Fernandezek mahai gaineratu duen bezala, mundu mailan ematen ari den oldarraldi faxista Irunera ere iritsi da, eta Lakaxitak eraso faxista eta naziak pairatu ditu. Abendutik hona hamaika izan dira Lakaxitak jasandako oldarraldiak, eta horietako bat bertako protokoloaren kartelak kentzea edo ikur naziak marraztea izan dira, bes-

PORTUKO PILOTUAK

San Pedro kalea, 32
Pasai San Pedro
943 35 15 34
www.pasajespilot.com



teak beste. Errealitate horri ezin zaio-
la «bizkarra eman» espazio segurua
bermatzeko protokoloa idazterakoan
uste du asanbladak, eta ideia horri eu-
tsi dio Ara!Gorputzek hiru saioak disei-
natzerakoan. «Espazio seguruak behar
ditugu barruan gerta daitezkeen era-
soei begira, baina baita kanpoan izan
daitezkeen horiei begira ere», iritzi du
Ara!Gorputzeko kideak.


Prozesua

Funtsean, matxismoari aurre egiteko
eta dinamika matxistekin apurtzeko
prozesua da iaz abiatu zutena, eta ho-
rretarako zein barne dinamika dituzten
eta nola antolatzen diren aztertzen ja-
rraitu dute gaztetxeok. Oraingo pro-
zesu honetan ere barne matxismoak

izan zituzten hizpide, baina perspekti-
ba moldatuta. Oraingoan, faxista batek
egin dezakeen erasoez babesteaz ere
ari dira. Horretarako ez dago «txerto-
rik», hau da, inork ez dauka «txerto

**Iruditerian ere eragiteko
asmoz, logoa berritu du
Lakaxitan.** A.Aranburu

**OIHALAK
ARTILEAK
IKASTAROAK**



**GORA BORROKA
FEMINISTA!**

@blazmo_ wool
Nafarroa hiribidea, 28
ERRENTERIA-ORERETA. Tel.: 843 67 17 34

KABALA

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak
943 53 57 51 / 605 76 52 14
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com



**EZBERDINAK
IZANIK,
PAREKIDE BIZI**

Martxoak 8:
Emakumeen Nazioarteko Eguna



**orereta
ikastola**
AURRERA!

www.oreretaikastola.eus

antifaxista», eta beraz, edonork eraso bat egin dezakeela oinarri hartuta, edonor «logika faxistaren» barruan murgil daitekeela sinesten dute gaztetxean. Hori dela eta, iazko prozesua bukatu zenean eta bigarren hau bukatzen denean ere, gaztete seguru bat eraikitzeke hausnartzeko tarreak hartu behar direla berretsi du Fernandezek. «Formazio etengabea egon behar gara. Ez dugu soilik eskolan ikasten; bizitza osoan zehar ikasketa prozesu beteana murgiltzeko beharra daukagu», gaineratu du. Azpiratze edo dominazio dinamiken aurka egin nahi dute kalean eta etxe barruan, eta «modu kontzientean».

Lehen saioan segurtasuna bermatzeko oinarritzko elementuez aritu ziren, eta horretarako ekofeminismoaren eta jatorrizko herrialdeen ekarpenak gertu izan zituzten. «Zein segurtasunez ari gara hitz egiten ezin baldin badugu arnasarik hartu? Ezin badugu urik edan edo jan?», galdetu du Fernandezek. Galdera horiek planteatzen

duten logikaren barruan, gaztetea zer den definitu zuten, eta segurtasunaren gaineko «definizio propio» bat adostu zuten. «Zer da guretzat segurtasuna?» galdetu zieten; gaur egun segurtasun enpresek poliziarekin antzekotasun handia dutela ondorioztatu zuten. «Baina gu utopia errealtate bilakatzen dugunak izanda, segurtasuna ezin da hori izan», argitu du Ara! Gorputzeko kooperatibistak. Beharrezko izan zuten segurtasuna kontzeptualizatzea, eta ondoren, Lakaxitak dituen lanabesak erreparatzea. Lanabes horiek feminis- motik, autogestiotik eta okupaziotik eraiki nahi dituzte, eta horretan murgildu ziren; nolako segurtasun bermeak izatea gustatuko litzazkiekeen amesten jarri ziren. Laburbilduz, lehen saioa «oso ideologikoa» izan zen.

Lakaxitaren ibilbidea erreparatzea ere beharrezkotzat eman, eta gaztetean militatu zuten hainbat kide gerturatu ziren aurreneko hitzordura. Lakaxita okupatu aurretiko gazte asanbladaren ibilbideaz aritu ziren.

Halaber, software librearen iritsiera izan zuten hizketagai, eta Bidasoko kooperatibagintzaren jaiotza izan zen hurrengo gaia.

Bigarren saioan antolaketa «eraginkor» eta «zaintzaile» baterako lanabesak partekatzen arituko dira. Pausu hori «ezinbestekoa» dela zehaztu du Fernandezek, antolakuntzarik gabe ez baitago ez segurtasunik ezta autodefentsa feminista ezta antifaxistarik ere. Beraz, hori lortu ahal izateko antolakuntza gakoa da, baina bizimodu kapitalistan era autonomoan antolatzeko aukerak gutxi direla uste dute. «Azpiratze sistema etengabekoan barruan beti daukagu gure gainetik nor obeditu: gurasoak, irakasleak, nagusiak, metroko segurtasunekoak... Beti dago norbait esaten diguna zer egin», azaldu du kooperatibistak. Errealtate horren aurrean, Lakaxita bezalako «espazio kooperatibistak» beharrezkotzat jo ditu, parte hartzaileek erabakitzeke aukera baitaukate. Era horretan, haien boterea «entrenatu» dezakete. Gaztetea 20 urte betetzen ari da aurten, eta bi hamarkadaz bada martxan, «antolaketa eraginkor» bat duelako dela ziur da Fernandez; eta, beraz, «eskola autonomoa» dela definitu du. «Horri ekarpena egiten ari gara».

Azken eta hirugarren saiora segurtasunaren eta antolaketaren oinarriak landuta iritsiko dira asanbladako kideak, eta landutako horren arabera gidatuko dute azken saioa. Horrez gain, Joxemi Zumalabeko kideekin hartutako erabakiak berriro aztertuko dituzte, eta gaur egun erabaki horiek nola ikusten



ONGI ETORRI!

Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00

Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTZO



Maitena Yarzabal

**Niregatik, zuregatik
eta denengatik**

DESDE 1963 TM

**PESCADERIA-ARRAINDEGIA
SANTAMARIA**
AZUENO, 22 - TEL. 943 39 07 33 TRINTXERPE

Azkuene, 22 - 20110 Pasai Trintxerpe - 943 390 733 - 620 841 883

Mirari Txurio

ILEAPAINDEGIA
**Berdintasuna,
eskubidea da!**

Tel.: 943 49 20 52
Rafael Pikabea, 27
20180 OIARTZUN

dituzten aztertuko dute. Lanketa horrek etorkizunera begira dagoeneko dagoen protokoloa «fintzeko estrategiak sortzeko» balioko du. «Taldean sortzen diren dinamiken arabera joango gara bata edo bestea fintzen», esan du Fernandezek.



«Ez dago norbait antifaxista ona dena. Zuk ere badakizu izaten eta erantzuten»

IONE FERNANDEZ ZABALETA

ARA!GORPUTZEKO KOOPERATIBISTA

Antifaxismoa definitzen

Antifaxismoa zer den definitzeko tartea hartu du Ara!Gorputzek, baina ez dute definizio zehatzarekin topo egin. Hori bai, faxismoarekin eta antifaxismoarekin «estereotipo maskulinizatu bat» dagoela uste dute, eta horrekin «emakumeok» eta «feministok» hautsi behar dutela azaldu dute. Zaintza lanak emakumeengan zamatzan direla argi ikusi da mugimendu feministak egindako azken hausnarketa eta mobilizazioetan, eta Fernandezek gogorazi du norbera bere amonarekin egotea «ekintza antifaxista» izan daitekeela, faxismoak ez duelako nahi horrelakorik gertatzea.

Etsaia ezagutzea eta haiek propo-

satzen duten alternatiba ezagutzea «oso ongi» dagoela uste du Ara!Gorputzek, ulertu ahal izateko logika horren barruan eta kanpoan zer dagoen. Fernandezek argi du «gure bizitzaren parte nagusia hortik kanpo» dagoela, eta faxismoa «guk egiten ditugun gauza gehienek kontrako» dagoela. «Berriri nabarmendu nahi dut antifaxista

izatea ez dela kaputxa jarri eta jipoiak ematea. Antifaxista izatea bikotearekin beharrez, zure lagunekin geratzea lehenestea izan daiteke», adierazi du.

Faxismoak ez du sartzea lortzen ideia faxistak edo ideia arrazistak ehunduta ez dauden komunitateetan, hala azaldu du Ara!Gorputzeko kideak. «Gure bizilagunak, tabernariak edo Pakistandik etorritako dendariak ezagutzen baldin baditugu, haiekin harreman bat errotzen badugu eta baldin badakigu haiek ez digutela inolako kalterik egiten, ideia faxistak iristen direnean, sinpleki, ez daukate lekurik». Aldiz, etxean «isolatuta» eta bizitzarekin «nazkatuta» dagoena botere faxistaren mezuekiko «zaurgarriagoa» izango da. Auzoan bizitza egiten duen jende gehiena antifaxista dela sinistu beharrez, mezuari indarra eman dio Fernandezek eta faxismoaren «zirrikitu oro» blokatu behar dela uste du. «Ez dago norbait antifaxista ona dena. Zuk ere badakizu izaten eta zuk, erantzun. Ziur erantzun hori ondo egongo dela», bukatu du. ■

HITZakide **TXOKO MOREA**

Parte hartzeko joan
Hitzakide Txokora
martxoaren 12a baino lehen

dilin dan.

Dilindan-en belarritako parea

@dilindan

elkar

'Geure gorputzean eta etxean burujabe'

Aiora Urbieta Eizagirrenen liburua.
ELKAR argitaletxea

FEMINISMOA KLASA BERRUKA DA

DENA ALDATZEKO ARI GARA

AREK

Arek kandelak

@thearekconcept

'Ni naiz nire etxea' lamina

Amaia Azkarate ilustratzailea eta diseinatzailea.

@amaiazk

bf
oskual herriko bilgune feminista

Bilgune Feministaren eskutik

Bi lamina, koaderno eta banderola.

www.bilgunefeminista.eus

igandean HISTORIAZ JANTZI!



Hilabetero, azkeneko
igandean, Historiaz
Jantzi zaitez!
HITZAkideentzako
bisita gidatu
bereziak doan!

Martxoaren 30ean:

BELOAGA

Oiartzungo nafar gaztelua

11:00etan ibilaldia Done Eztebe plazatik hasita
25 lagunentzako tokia. Erreserbatu zurea!

Izen emateko:

sustapenaobh@hitza.eus



688 77 07 52



Izen emateko azken
eguna: martxoak 26



faxismoaren aurrean
aliantza feministak eraikiz



MARIA JOSE NOAIN MAURA ARKEOLOGOA

Maria Jose Noain Maura hondarribiarrak 'Las mujeres en la historia del arte' liburua argitaratu du. Artearen historian zehar emakume artistek izan duten presentzia landu du.

LEIRE PERLINES APALATEGI

HONDARRIBIA

« Presentziak bezain garrantzitsuak izan daitezke hutsuneak »

Arkeologo gisa definitzen du bere burua Maria Jose Noain Maurak, baina Geografia eta Historian lizentziaduna, Historiaurrea eta Arkeologia espezialitate-duna, eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziaduna ere bada. Baita Los Viajes de Aspasia proiektuaren arduraduna ere. Zenbait alor jorratu ditu Noainek, eta berriki bere azken lana argitaratu du: 'Las mujeres en la historia del arte' liburua.

Zer kontatu duzu liburuan?

Honako galdera honi erantzuten saiatzen den liburu gisa definituko nuke: zergatik ematen du ez dela emakume artistarik egon? Ez da emakumeek ar-

tean egin dutenaren bilduma kronologiko bat, zorionez, gaur egun, argitalpen asko daudelako horren inguruan. Liburuaren kapituluak tematikoak dira, eta *spoiler* bat egingo dut: badi-rudi ez dela emakume artistarik egon, oso zaila izan zutelako historia osoan zehar profesionalizatu ahal izatea. Ezin zuten hezkuntza arautuan sartu anatomia ikastera, esaterako. Edo, historia-ko edo mitologiako koadroak ere ezin zituzten egin, eta horiek ziren ospea zutenak.

Gainera, oztopoak gainditu eta profesionalizatzea lortu zutenak ere artearen historiak sistematikoki ikusezin bihurtu ditu.



Leire Perlina Apalategi

Zein emakumeren inguruan hitz egiten duzu liburuan? Eta zergatik horiek?

Aukeratu ditudan emakumeak dira kapituluetan ematen ditudan argudioak justifikatzeko balio didatenak; hau da, autorretratuaren garrantziaz ari baina, kapitulu horretan autorretratua bereziki garatu zuten emakumeetan zentratu naiz.

Esaterako, sinaduraren manipula-

CORAZONISTAS
TELLERI-ALDE

KONFIANTZA BIDEA

Martxoak 8

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo. San Pedro.
Trintxerpe. Lezo.

943.39.14.14



Baina, esterako, Rosario Weiss niretzat erabat ezezaguna zen, eta badirudi Francisco de Goyaren alaba zela, eta haren heziketa jaso zuela. Denok dakigu oso ondo Goya nor zen, baina ez dugu ezagutzen Rosario Weiss. Marrazkilari bikaina zen.

Arte femeninoa eta maskulinoa lan-tzen dituzu. Zein ezberdintasun dago?

Argi daukadana da gai beraren inguruko bi koadro hartzen baditugu, garai berean egindakoak, baina bata emakume batek egindakoa eta bestea gizon batek egindakoa, ez dugula jakingo ezberdintzen nork egin dituen. Ez dago arte feminorik edo arte maskulorik. Edo, behintzat, hori da nire iritzia. Begirada androzentrikoaren ondorioz emakumeek oztupo asko izan dituzte, eta ezin izan dute gizonak margotzen zituzten gauzak margotu. Are, arte ederren akademiak garai berantiarrean onartu zituen emakumeak, eta ez bazuten hezkuntza akademiko hori jasotzen, ezin marraz zezaketen giza

zioaz hitz egiten dut, baita ospea zuten eta sina zezaketen emakume artista profesionalek nola ikusi zuten haien sinadurak ezkutatu, eta manipulatu egin dituztela. Judith Leysterren adibidea da hori. XVII. mendeko margolari herbeheretarra zen, eta haren sinadura manipulatu zuten.

Badirudi ez dagoela emakume artistarik, baina bai, badaude. Gizarteak beti izan du begirada androzentriko bat, eta emakumeek egin duten lana artearen historiak ikusezin egin du, nahiz eta haiek artista profesional gisa lan egin. **Zergatik ezabatu nahi zituzten, hortaz, emakumeak?**

Emakume batek pintatzen badu, emakume batek bere tailer profesionala irekitzen badu, eta emakume batek bere eguneroko orduak enkargatu dizkioten eta primeran saltzen dituen koadroak egiten ematen baditu, ez dituelako bere ama eta emazte lanak egiten da. Gizarteak izan duen begirada androzentrikoa; hori baino ez da.

Ikasi duzu ez zenekien zerbait?

Bai, uneoro, baina egia da emakume gehienak aurretik ezagutzen nituela.

anatomia. Ezin dira gorputz maskulino edo femeninoak era egokian margotu ezin badute biluzia ezagutu.

Beraz, emakume batek ezin baditu historia, mitologia eta erlijio gaietako lanak egin, tradizionalki txikiagozat jo diren generoak landuko ditu, hala nola, erretratua, paisaia edo natura hila.

Mundu domestikoa eta amatasuna gehiago landu dute emakumeek gizonek baino. Zergatik? Emakumeek, ama eta emazte bezala, sentsibilitate handiagoa zutelako domestikoarekiko, edo, egunerokoan inguruan zutena zelako? Hori baino ezin zuten margotu.

Eta, beraz, zer da arte feminista?

Arte feminista, arte feminista izatearen kontzientziarekin, aurreko mendeko 1960 eta 1970eko hamarkadetan azaltzen da; nire ustez hori feminismoaren bigarren olatua da. Esan daiteke bigarren olatu horretan hasten direla aldarrikatzen posible dela emakumeek beste era batera margotzea eta beste gai batzuk lantzea.

Arte feministaren aitzindari gisa Judy Chicago eta Miriam Schapiro aipa daitezke. *Cunt art* izeneko modalitatea egiten zuten; literalki *aluaren artea* esan nahi du horrek. Bulbaren errepresentazioa zen haien artearen motibo karakteristikoa. Gorputz femeninoaren auto ezagutza aldarrikatzen zuten.



«Badirudi ez dagoela emakume artistarik, baina bai, badaude»

«Emakume artisten lan gehiago sartu behar dira bilduma iraunkorretan»

Gizonek emakumearen gorputzaren motibo zehatz batzuk erabiliz eta defendatuz egiten zuten, eta arte horretatik aldentu nahi zuten. Baina, hortik aurrera, arte feministak aldarrikapen ugari ditu, eta kontzeptualki patriarkatua salatzen eta kritikatzeko hainbat gai aukeratzen dituen arte gisa uler daiteke.

Museoetako diskurtso tradizionalak aldatu behar direla diozu.

Lehenik eta behin, emakume artisten lan gehiago sartu behar dira bilduma iraunkorretan; museoek obra gehiago erosi behar dituzte. Iruditzen zait diskriminazio positiboa egin behar bada egin egin behar dela, arazorik gabe. Jendeak horri oportunismo politikoa esaten dio, baina niri horrek ez dit axola, egiten badute, egin dezatela. Ongi etorria da. Guggenheimek, esaterako, Helen Frankenthaler, Tarsila do Amaral eta Barbara Krugerren lanak ekarriko ditu aurten. Hiru artista indartsu dira horiek, eta hirurak urtebetean ekartzea zoragarria da. Thyssen-en ere itxi berri da Gabriele Münter-en erakusketa, baina lehendik Rosario de Velasco, Isabel Quintanilla eta Maestrasenak ere egon dira. Hala ere, zailena kontatzen dena aldatzea da. Batzuetan presentziak bezain garrantzitsuak dira hutsuneak.

Gauza bat da noiz funtzionatzen dugun subjektu gisa, arte ekoizle gisa, eta beste gauza bat da noiz funtzionatzen dugun objektu gisa, eredu gisa, eta erotizazio bezala.

Nik ez dut esango inoiz Rubensen *Hiru graziak* edo Tizianoren *Venus* koadroak museoetatik kentzeko, lan zoragarriak dira. Baina azalpenak eman behar dira. Konta dadila nola sortzen den Praxitelesen Afroditen lehen biluzi femeninoa. Kontatu egin behar da emakumearen kosifikazio eta erotizazio prozesua. ■



Elkarrizketa osoa irakurri nahi izanez gero, eskaneatu QR kodea: bidasoa.hitza.eus

ESTREINALDIA

ATERPEA

Diskurtso faxisten dieran dauden herritarren aterpe

hamaika

Martxoaren 12an hasita asteazkenean 21:30ean Hamaika Telebistan

HONDARRIBIA

Gaur, ostirala. 11:00etan, Martxoak 8 plazan, *Sare moreak ehuntzen* jarduera; 20:00etan, Itsas Etxean, *Cantando a través del muro: canciones para Sahara Occidental* izenburupeko kontzertua.

Bihar, Martxoak 8. 17:45ean, Martxoak 8 plazatik, Bidasoko manifestazioarekin bat egiteko martxa.

Etzi, igandea. 11:00etan, Emeki elkarretetik, II. Emakume Korrika; 19:00etan, Itsas Etxean, *Soy Nevenka* filma.

Hilak 10. 18:00etan, Kasino Zaharrea, VII. Emakume Xake Topaketa.

Hilak 11. 17:00etan, Zuloaga Etxea liburutegian, Lupe Lekuonaren haurrentzako ipuin kontaketa.

Hilak 15. 10:00etan, Jostaldi pilotalekuan, Bixi Bixi Pala Topaketa.

IRUN

Gaur, ostirala. 17:00etan, Uxo elkarrean, *La consulta de Don Melquiades* sainetea; 17:00etan, Kateako adinekoen lokalean, idazketa feministako taillerretako lanen erakusketa; 17:00etan, Palmera Monteron, *Figuras ocultas* filma; 17:00etan, San Migelgo adinekoen egoitzan, Martxoaren 8aren inguruko bideo emanaldia; 18:30ean, Gaurko Andreak-en egoitzan, *Woman* filma; 19:00etan, Urdanibia plazan, bingo musikatua; 19:00etan, Oiasso Museoa, Maite Larbururen eta Parean elkarrearen podcastaren aurkezpena.

Bihar, Martxoak 8. 12:00etan, San Juan plazan, elkarretaratzea; 13:00etan, Itaiaren elkarretaratzea San Juan plazan; 17:00etan, Behobiako adinekoen egoitzan, *Amama* filma; 17:00etan, Luis Marianoko adinekoen egoitzan, *Te doy mis ojos* filma; 17:30ean, Anakako adinekoen egoitzan, *Madam CJ Walker* filma; 17:30ean, Lekaeneako adinekoen egoitzan, emakumeen murala; 18:30ean, Bidasoko manifestazioa Abenida zubitik.

Hilak 10. 17:00etan, Uxo elkarrean, *Emakumeen autozaintza* tailerra.

Hilak 11. 11:00etatik 17:00etara, Bidasaldeko Elkarre Feministaren egoitzan, XI. urteurren festa; 18:30ean, Paren elkarrean, *Presio estetikoaren eragina osasun fisiko eta mentalean* hitzaldia.

Hilak 12. 17:00etan, Argoiak elkarrean, *Bidasoko emakumeen udako emigrazioa 1950eko hamarkadan* hitzaldia.

Hilak 13. 18:00etan, Emakumeen Etxean, *Nina* filma; 18:30ean, Amaia KZn, *Amari* dokumentala; 19:00etan, Kabigorriin, Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren sari emate ekitaldia.

Hilak 14. 19:00etan, Amaia KZn, *Aún es tiempo de feminismo* dokumentala.

Hilak 16. 19:00etan, Amaia KZn, *Notas de ella* izenburupeko kontzertua.

Ekitaldiak. Hilaren 16tik aurrera badira ekitaldi gehiago. Ikusi horiek *bidaso*.hitza.eus webgunean.

ERRETERIA-ORERETA

Gaur, ostirala. 14:00etan, Merkatuzarren, emakumeen bazkaria.

Bihar, Martxoak 8. 18:00etan, Zumarditik, manifestazioa; 23:00etan, Arkaitza tabernan, Irantzu Idoate, Ane Beloki eta Kattin Madariagaren ArkaHitzak bertso saio berezia.

Etzi, igandea. 19:00etan, Niessenen, *Ondas bárbaras* antzezlan.

Hilaren 12 eta 19an. 17:30ean, Lekuona Fabrika, *Emakumea eta artea* tailerra.

Hilaren 13, 20 eta 27an. 18:00etan, Niessenen, Emakumeen XXI. Zine Emanaldia, Amalazten eskutik.

Hilaren 12, 14, 17 eta 18an. Emakumeen Etxea ezagutzeko ate irekiak.

Hilak 16. 12:00etan, Reina aretoa, *Berebiziko gauzak egin dituzten emakume arruntak* hitzaldi musikatua.

Ekitaldiak. Hilaren 16tik aurrera badira ekitaldi gehiago. Ikusi horiek *oarsoaldea*.hitza.eus webgunean.

LEZO

Gaur, ostirala 21:30ean, Ibaiondon, bertso afari feminista Aissa Intxausti eta Miren Artetxerekin. Sarrerak agortu egin dira

Bihar, Martxoak 8. 10:00etan, plazan, emakume korrikalarien beroketa eta ipar martxako kideen irteera; 10:30ean, emakume korrikalarien irteera; 12:30ean, plazatik, manifestazioa; bigarrenean Miren Gezala plazaren izendapena egingo da; ondoren, brindisa Karlos Saldisen plazan; 17:30ean, Koldobike Gezala

pilotalekuan, emakumeen esku pilota txapelketaren finala.

Etzi, igandea. 19:30ean, Gezala Auditoriumean, *Feminissimas* antzezlan.

Hilak 15. 19:00etan, Gezala Auditoriumean, zineforuma.

Ekitaldiak. Hilaren 15etik aurrera badira ekitaldi gehiago. Ikusi horiek *oarsoaldea*.hitza.eus webgunean.

OIARTZUN

Gaur, ostirala. 18:00etan, Landetxan, Paperak Galdu Gabe zikloko mahai-ingurua. Gaia: *Feminismoa Oarsoaldean*, *gaur*.

Bihar, Martxoak 8. 16:30ean, plazan, batukadaren entsegu irekia; 18:00etan, plazan, aitortza irakurketa; ondoren, manifestazioa; martxa bukatzen denean, karro-poteo feminista; 21:00etan, Girizia elkarrean, afari beganoa; afaloste, kantaldia.

Hilak 11. 19:00etan, udaletxean, Maite Frankoren ipuin kontaketa helduentzat.

Hilak 13. 19:30ean, Landetxan, *Parthenope* filma

Ekitaldiak. Hilaren 13tik aurrera badira ekitaldi gehiago. Ikusi horiek *oarsoaldea*.hitza.eus webgunean.

PASAIA

Gaur, ostirala. 12:00etan, Trintxerpeko Gudarien plazan, emakumeen entzute taldearen bilkura.

Bihar, Martxoak 8. 14:00etan, Donibaneko Bixi Bixi elkarrean, bertso bazkari musikatua Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi bertsolariekin.

Etzi, igandea. 19:00etan, Donibaneko Juanba Berasategin, *Mira hadi* antzerkia.

Hilak 12. 19:00etan, Trintxerpeko alkatordetzan, jatorri askotariko emakumeen topaketa.

Hilak 16. 19:00etan, Trintxerpeko alkatordetzan, Kikilisdaren antzerkia.


Hilak 23. 12:00etan, *Pasaiako emakumeen borrokari omenaldia* jarduera: Trintxerpeko Gudarien Plazatik Correosera martxa, eta ondoren, herriko emakume borrokalariei omenaldia alkatordetzan; jarraian, herri bazkaria Gudarien Plazan.

Ekitaldiak. Hilaren 23tik aurrera badira ekitaldi gehiago. Ikusi horiek *oarsoaldea*.hitza.eus webgunean.

Viteri tabernako atzeko atea

Memoria
historikoaren
garrantzia eta
mantenua
pil-pilean dagoen
honetan,
Errenteria-Oreretan,
1980ko hamarkadan
antolatu, eta
abortatzeko aukera
erraztu zuten
zenbait emakumek.

GOIATZ IZA ERKIS
ERRENTERIA-ORERETA



urriko egun hotz bat da, 17:35ak dira. Urdin-urdin dago zerua, oraindik ordu batzuk falta dira eguzkia sartzeko.

Kotxean doaz, baina inork ez du hitz egiten, isiltasuna nagusi da. Irun eta Hendaia batzen dituen zubia gurutzatu behar dute.

- *Buenas tardes señoras*— agurtu die poliziak.

- *Buenas tardes*— erantzun diote eurek.

- *¿A dónde se dirigen ustedes?*—, galdetu die.

- *Vamos a comprar Levi's*—, esan dio gidatzen ari denak.

Ez doaz Levi'sak erostera, abortatzera baizik.

1975. urteak aro bortitz eta ilun bat itxi eta beste bati atea ireki zizkion, aro eraberritu eta aske bati; edo hala uste zuten askok behintzat. Baina ez zen horrela izan, edo ez gutxienez berehalakoan.

Trantsizioak balizko demokrazia baterako bidea ireki zuela ukaezina da, aldaketa garaiak izan ziren. Baina diktadura bateko 40 urte ezin dira hala nola konpondu. Zenbait borrokak kaleak bereganatzen zituzten bitartean, nazioaren auziak kasu, beste zenbaitek oraindik isilean zirauten. Ertzetan bizi-

rauten zutenak ziren horiek, historiako beste pasarte askotan bezala, etengabe bigarren planoan zirenak; emakumeak, esaterako.

Azken hori alda zedin, emakumea ertzetik erdigunera eramateko, Errenteriako Emakumeen Taldeko kide batzuek egindako borroka eredugarria bezain ikusezina izan zen. Bat gora, bat behera, 100 emakumeri lagundu zieten muga igarotzen Biarritzen aborta zezaten, Hego Euskal Herrian legez kanpokoak baitzen. Nati Rufo (1953), Karmele Santos (1947) eta Pili Urkia (1955) izan ziren sare horretako zati bat.

«Hiltzen ziren»

Askorengandik zen desiratua Trantsizioak ekarriko zuen ustezko askatasun berri hori. Emakumeen eskubideen kasuan, baina, ez zen inondik sumatzen, ezta entzuten ere, libertate haizearen ulua. Legeen zain egon beharrean, ordea, Errenteriako Emakumeen Taldearen barruko zenbait partaide legeen bila hasi ziren.

Dibortzioa, abortua, praktika sexual askeak eta gerora lesbianismoa ere aldarrikatzen zituzten. Iantzi auzoko lokal batean hasi ziren elkartzen, gauetan, behin egunean zehar antolatzen ziren ikastaroak amaitu ondoren. Bertan hasi ziren euren «lehen *planning*-a» antolatzen. «Ilegalak ziren dibortzioa eta abortua, eta jende asko zegoen arazoekin. Emakume batzuek tratu txarrak sufritzen zituzten, baina ezin ziren banandu. Beste batzuek amatasun ez desiratuak zituzten. Horregatik nahi genuen *planning* bat, gure amatasun desioak planeatzeko», esan du Rufok. Antisorgailuen erabilera ere aldarrikatzen zutela gehitu du Urkiak.

Legez kanpokoak zen garai hartan, beraz, haurdunaldia etetea, eta, ondorioz, ohikoak bihurtu ziren abortatzen saiatzeagatik hildakoen kasuak. Oso urrutira joan gabe, 1976ean Beasaingo emakume bat hil zen abortatzeko metodo gisa perrexila erabiltzeagatik, geroz eta zabalduagoa zen teknika bat. «Bagenekien zergatik hiltzen ziren eta erantzun bat eman behar genuen», aitortu du Rufok.



Nati Rufo, Pili Urkia eta Karmele Santos, Viteri tabernaren atarian. Goiatz Iza

Testuinguru horretan sortu zen abortatzen laguntzeko sarea. Klantestinoki egiten zuten, zigorra handia izan zitekeelako. 1979ko urteko Zigor Kodearen arabera, abortatzeagatik sei hilabetetik hiru urterako kartzela zigorra jaso zitekeen, eta horri gizarte bazterketa eta umiliazioa erantsi behar zitzaizkion. Izan ere, ez zen soilik abortatzea. Egindakoaren aurrean ingurukoek izango zuten erreakzioa ere bazen faktore nagusi bat. «Abortatu ondoren etxera itzultzen ziren, eta senarrek ez zekiten abortatu egin zutela. Ez zen soilik abortatzea, etxekoak egindakoaz jabetzearen beldur ziren asko, fedek oraindik pisu handia zuen», esan du Santosek.

Gauzak aldatzen hasi baziren ere,

erlijioak oraindik eragin nabarmena zuen, eta horrekin batera, beste zuta-beak: familia. «Elizarengandik genuen eragin krudela itzela zen. Frankismoak markaturiko debekuak ere asko ziren», adierazi du Rufok. «Hiltzaile» deitzen zien Elizak. «Eta jarraitzen digu deitzen», gehitu du Santosek. «Lotsan oinarrituriko kontzientzia bat zegoen eta horrek abortuak baino gehiago markatzen zintuen», jarraitu du Rufok.

Ahoz aho zubia gurutzatuz

Dirua zuenak Londresera bidaiatzen zuen abortatzera, baita Herbehereetara ere, baina haiek Biarritzera joaten ziren. kontaktu fidagarri batek eman zien hango klinikaren berri. «Ez zegoen frantsesik, denak hemengoak ziren», argitu du Santosek. 1980. urtean *Egin* egunkariak argitaratutako albiste baten arabera, Biarritzen abortatutako emakumeen %70a Espainiar Estatuko

jatorrikoak ziren. «Aberastu egin zen ginekologoa, baina segurua zen, ondo egiten zuen lan. Nik ezagutu nituen emakume batzuk abortatzera joan, harategi batekin topatu, eta hantxe egin zieten egin beharrekoa», gehitu du Urkiak.

Ahoz aho pasatzen zuten mezua, eta astero behin edo bitan elkartzen ziren Biarritzera joateko. Viteri tabernan egiten zuten hitzordua, beti ezkutuan,

«<< Etxekoak egindakoaz jabetzearen beldur ziren asko, fedek oraindik pisu handia zuen >>

KARMELE SANTOS

ERRENTERIAKO EMAKUMEEN
TALDEKO KIDE IZANDAKOA

aurretik abisatuta nola joango ziren jantziak. Tabernak ate bat bakarrik du, baina garai hartan bi izatera iritsi zen: bata kalera ematen zuen; besteak, berri, askatasunera. Txandaka aritzen ziren, ahal zuenak laguntzen zuen.

Kotxez joaten ziren Lapurdiko hirira, baina zenbait kasutan, kotxerik gabe izan eta autobus publikoan joan behar izan zuten. Santosek kontatu du emakume batzuk abortatzeko diru justuarekin etorri, eta beraiek ordaindu behar izan zirela autobusa kasu horietan. Abortatzeak batez beste 22.000 pezetako kostua zuen, egungo 130 bat euro.

Hamaika ekintza

Tentsio unea izaten zen zubia pasatzeko momentua. «Dena zen beldurra beste aldera pasatzean. Miatu egiten zintuzten, eta guk bagenekienez zer egitera gindoazen...», kontatu du Rufok. Dena dela, inoiz ez zen larritasun tarterik izan; alderantziz, ugari dira harrotasunez gogoratzen dituzten unekak.

Rufok eta Santosek, adibidez, gogoratu dute nola behin Donostiako autobus publiko bat konfiskatu eta herrian barrera joan ziren abortuaren aldeko aldarriak eta bandera feministak leihoe-tatik ateraz. «Badago beste ekintza bat



Emakumeak, udaletzeko pleno aretoan 1979ko urriaren 26an. Errenteriako Udalaren artxiboa

asko markatu ninduen», gehitu du Urkiak. «Behin emakume bat etorri zen taldera esanez gizonak jo egiten zuela. Topora joan ginen senarraren bila, eta iritsi zenean abisatu egin genion bagenekiela zer egiten zuen. Oldarkor jarri zen, «eta bera zer?» oihuka hasi zen. Jo egin nahi gintuen. Hasi ginen bere aurka zabor poltsekin... gogoan dut begiak gorri-gorri itzuli nintzela gutako batzuek zeramaten autodefentsarako espraiarengatik. Gero emakumea etorri zen eskerrak ematera», kontatu du, barre artean.

Oreretan ez ezik, gainerako herrietan jazotakoen aurrean ere erakutsi zuten babesa emakume horiek. Horren adibide da udaletxean giltzapetu zirenekoa. 1979ko urriaren 26a zen, Basauriko hamaika emakumeren aurkako lehen epaiketa eguna. Abortatzeagatik eta abortatzen laguntzeagatik izango ziren epaituak.

Gertakari horren aurrean, emakume horien aldeko mobilizazio olatua erraldoia izan zen Euskal Herri osoan. Manifestazioak, kontzentrazioak, kale propaganda eta beste asko egin zituzten epaiketa geldiarazteko. Udaletxeak hartzera ere iritsi ziren, eta Errenteriakoa izan zen horietako bat. Epaike-

taren egunean udaletxean giltzapetu ziren hainbat emakume elkartasuna erakutsiz Basaurikoei, eta gaua igaro zuten han.

Iraultzaile edota arriskutsu bezala defini daiteke sare horrek egindakoa. Baina ez zen zerbait berria. Ertzetan bizitzeak marjinatua eta isildua izateaz gain, elkartasun sare baten parte izatea esan nahi du; baliabideak bilatzea bizirauteko; bidean aurkitutako laguntza baten parte izatea. Oreretan bazen jadanik horrelako sare bat. «Nik gogoan dut bizilagunen artean bazegoela horrelako elkartasun bat. Batak esaten bazuen, 'aizu, berriro haurdun gelditu naizela', besteak lagundu ziezaiokeen baten bat ezagutzen bazuen, kontaktua pasatzen zion», azaldu du Urkiak.

Indar parapolizialak

Abortuaren alde egindakoak, baina, ez ziren emakume horien borroka bakarra izan. Garai hartan poliziaren zein indar parapolizialen jazarpena ere etengabea zen. «Hegal oso handiak zituzten», deskribatu du Urkiak. Horren adibide da 1979aren amaieran eta 1980aren hasieran izandako Errenteriako bortxaketan kasua. Gertatutakoa «sexu bidezko izu kan-

paina» bezala definitu zuen 2023an Jonathan Martinez komunikazio iker-tzaileak *Nai*z komunikabidean.

Argitaratu berri da, hain zuzen ere, bortxaketa horien eta beste batzuen inguruko ikerketaren liburua. *Ukertzea, bizitzaren bila. Emakume gazteen bahiketa eta bortxaketa, 1979-1980* du izena eta Argituz elkarteak egin du.

«**Bagenekien zergatik hiltzen ziren, eta erantzun bat eman behar genuen»**

NATI RUFO

ERRENTERIAKO EMAKUMEEN
TALDEKO KIDE IZANDAKOA

Bost emakume bortxatu zituzten pistolarekin apuntatzen zituzten birtartean, nahiz eta bortxaketa saiakerara gehiago egin. Errenterian, Irunen eta Trintxerpen izan ziren. Lehena 1979ko azaroaren 14ean izan zen, eta bigarrena hilabete geroago, abenduaren 15ean. Bigarren bortxaketaren aurrean, bortxatzaileek adierazi zuten

«ekintza gehiago» egongo zirela las-ter. Esan eta egin. 1980ko urtarrilean beste hiru kasu izan ziren: urtarrilaren 4an bat, eta urtarrilaren 13an beste bi. Bostetako inork ez zituen 19 urte baino gehiago.

Argituz-ek egindako ikerketari dagokionez, kasu guztiek patroiz bera jarraitzen zuten: pare bat gizon armatuk autoz eramaten zuten neska babes gabeko leku batera, ideologia politikoari buruzko galdeketa egin, eta inolako lotsarik gabe eta inpunitate osoz jarduten zuten.

Inork ez zuen salatu, bazterketaren eta lotsaren beldur. «Oso gogorra izan zen. Bortxaketa selektiboak eta pistolaz», azaldu du Rufok. Biktimen familiek mehatxu asko jasan behar izan zituzten gertakarien aurrean egindako manifestazio eta prentsaurrekoengatik.

Salaketa jarri ez bazuten ere, herriak argi zuen indar parapolizialen ekintzak izan zirela. «Biktimetako batek bahituta eraman zuten kotxearen matrikula gogoratzen zuten, eta Guardia Zibilarengana joan zenean jazotakoaren berri ematera, bertan aurkitu zuten kotxea aparkatuta», kontatu du Urkiak. Are gehiago, 1980ko urtarrilaren 16eko *La Vox de España* egunkariko titularra honakoa zen: «GAEK LA VOZ-era deitu, eta bere gain hartu ditu azken bortxaketa-kasuak». Hurrengo egunean, urtarrilaren 17an, honela ireki zuten *Egin*-ek egunkaria: «GAE eta BVE taldeek azken asteetako bortxaketak errebindikatu dituzte». Dena dela, oraindik ez da epaiketak egin, eta kasuek argitu gabe jarraitzen dute.



Ehunka emakume lagundu zituzten oreretarrek abortatzera. Goiatz Iza

Bortxaketen aurrean Errenteriko Emakumeen Taldea Gipuzkoako gobernadore zibilarekin elkartu zen. «Bagenekien polizia zela, eta exijitu genion geldiarazteko, bestela zerbait egingo genuela. Eta greba orokorrerako deia egin genuen», azaldu du Santosek. Are gehiago, gertatutakoak gertatuta, eta auzoek zuten kale argiteria eskasagatik, gaueko komandoak antolatu zituzten herriko mutil eta neskekin. Auzoetan banatzen ziren, patruilatzen ibiltzen ziren, ezbeharren bat balego erantzuteko. Diotenez, inoiz ez zen ezer gertatu.

Herria gelditzea lortu zuten

Greba orokorra 1980ko urtarrilaren 17an egin zuten. *El País*-ek garai hartan argitaratu zuenaren arabera, Errenteriko Emakumeen Taldeak deitu bazuen ere, alderdi politiko ezkertiarrek, bizilagunen elkartek, herriko erakun-

deak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta udala ere batu ziren grebara. Herriar langileek ere babestu zuten mobilizazio eguna.

Goiz-goizetik batzarrak egin ziren lantegietan, eta hiriguneko taberna eta dendak itxi zituzten. Errepide nagusia ere moztu zuten kamioiak, trailerrak eta autobusak gurutzatuz. Kamioi horietako batzuk bezperatik zeuden bertan; izan ere, aurreko egunean Karlos Saldise lezoar militantearen erailketa salatzeke mobilizazioak egin ziren.

Gauetz izan zen manifestazioa, Zuzmardian kontzentrazioa egin ondoren. «Emakumez beterik, eta antortzekin. Kaleak gureak ere badira oihukatzen genuen», azaldu du Rufok.

40 urte geroago, oraindik ere lelo bera entzun daiteke Martxoak 8an, azaroaren 25ean edo indarkeria matxistaren erasoei aurre egiteko mobilizazio guztietan. ■

CIFP DON BOSCO LHII



• DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

Don Bosco alde z/g

• BERAUNGO ERAIKINA

Beraun kalea 1,
20100 Errenteria

Tel.: 943 510 450
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus



**Lanbide heziketa
baino askoz gehiago**



Trintxerpeko eskifaia osatzen duten emakumeetako batzuk. Imanol Saiz

Inoiz ez da berandu kirolean murgiltzeko

MIKEL DEL VAL GARCIA

TRINTXERPE

Trintxerpe Illunbe Arraun Elkar-teak klubarentzat mugarri izan den proiektu berri bat abiatu du, emakume arraunlari be-teranoz osatutako traineru bat atera baitu. Emakume arraunlari bete-ranoak iazko ekainean jarri ziren martxan, eta eskifaia hori sortzeko ideia Olatz

Hermo arraunlariak proposatu zuen. Hermoren desioak arrakasta izan zuen, eta emakume mordoak plazaratu zu-ten arraunean aritzeko nahia. Egun 38 emakume ari dira palakadak ematen Trintxerpen, astean lautan egiten dute arraunean, eta onartu dute «oso po-zik» eta «zoratura» daudela. Hermok

azaldu du proiektua egikaritzeko klu-beko gizon bete-ranoen laguntza izan dutela. Haiek bide luzeagoa egina dute, eta aitortu du haien laguntza gabe «ezinezkoa» litzatekeela emakumeen proiektua aurrera eramatea.

Trintxerpen elkartu diren 38 ema-kumeek 43 eta 56 urte artean dituzte, eta Oihana Otaegi eta Olatz Etxebeste arraunlariak aldarrikatu dute emaku-meeek kirola egin nahi dutela, adina kontuan izan gabe. «Badirudi adin batetik aurrera ezin duzula horrela-ko kirol egin, eta ez da egia», esan du Otaegik. Haren ildotik, Etxebes-tek adierazi du adin batetik aurrera emakumeentzat «zaila» dela kirola egitea eta horretan murgiltzeko pau-soa ematea; baina Trintxerpen urrats hori egin dute, zimenduak sendoak dira, eta emakume bete-ranoen eski-faia errealitatea da jada. «Emakumeek kirola egin nahi dugu eta emakumeen artean elkartu nahi dugu», baietsi du Etxebestek.

Trintxerpeko emakumeek haien arteko elkargune bat sortu dute, eta onartu dute «oso giro polita» dutela taldekideen artean. Taldearen babe-sean aritzeko garrantziaz ere mintzatu dira, haien arteko sare bat sortu bai-tute. Etxebestek aitortu du «ikaraga-rria» izan dela horrenbeste emakume arraunerako biltzea, asko esparru ez-berdinetatik etorriak, gainera: «Kirol ezberdinetatik gatoz. Batzuk kirol gutxi egin dute, beste batzuk gehiago egin dugu. Gauza ezberdinak egin ditugu denek, baina ikaragarria da nola elka-rrekin egoten garen, nola laguntzen

oiartzun bike

%50ERA ARTEKO DESKONTUAK BIZIKLETETAN!

f OIARTZUN BIKE Instagram OIARTZUN_BIKE

WWW.OIARTZUNBIKE.COM

OIARTZUN BIKE OLAGARAI KALEA 2, 8. PABILIOIA - OIARTZUN | **OIARTZUN E BIKE** BAZURKA INDUSTRIALDEA - ALEGIA

MARIN BOBCAT TRAIL 29
Lehen 649€, orain 473€



YUCATAN X10
YAMAHA 75NM 720WH MOTOREA
Lehen 3.599€, orain 2.699€

KTM REVELATOR ALTO PRO 105
KARBONOZKO KOADROA
Lehen 2.699€, orain 1.699€



garen gure artean, eta nola elkartu garen helburu berarekin». Otaegik nabarmendu du arraunari esker jendea ezagutu duela, harremanak egin dituela eta taldean aritzeko konpromisoa hartu duela: «Zuk egun txar bat izan dezakezu, baina hemen konpromiso bat dugu taldekideekin. Talde batean baldin bazaude eta egun batean ez baduzu etorri nahi, sekulako faena da besteentzako. Uste dut talde batean oso behartuta zaudela esan duzuna betetzera. Giro ona dugu eta gure artean asko animatzen gara».

Instalazio berrien aldarrikapena

Beteranoen arraun liga apirilaren 27an hasiko da, eta Trintxerpekoek osatu dute dagoeneko lehian arituko den eskifaia. Orain denboraldi aurreko arraun jaitsierak egiten ari dira, liga hasierara ahalik eta ondoen iristeko. Momentuz, hiru estropadetan aritu dira: otsailaren 9an Sestaon, otsailaren 15ean Orion eta hilaren 2an Castron. Liga hasiera bitartean beste bi lehia izango dituzte

trintxerpetarrek: hilaren 15ean Hondarribian izango dira, eta 30ean, San Pedron.

Ligarako taldea osatu dute jada, baina trintxerpetarrek adierazi dute edozein emakume gertura daitekeela klubeko instalazioetara arrauna zer

Egun 38 emakume beterano ari dira arraunean Trintxerpen, astean lautan biltzen dira

den ikustera eta kirol hori probatzera. «Buruarentzat eta gorputzarentzat primerakoa da kirola egitea, eta harremanak egiten dituzu», esan du Otaegik. Hermo harago joan da, eta jakinarazi du arrauna haienzat «dena» dela. «Orain arraunerako bizi gara», esan du. «Sortu dugun talde giroa oso polita da, eta arraunak gauza asko ematen dizki-

gu», gehitu du Etxebestek. Trintxerpeko ehun arraunlari inguru ditu. Klubaren jarduna, baina, kolokan egon daitekeela jakinarazi du Hermok, inguru horretan egin nahi dituzten obregatik instalazioak utzi behar dituztela esan baitiete.

Arraunlariak salatu dute une honetan ez dutela aterabiderik, eta kalean geratzeko arriskua dutela. Egoera horren aurrean, «leku finko bat» aldarrikatu dute, klubeko jarduna ezerezean ez geratzeko.

Nekane Abal arraunlariak goratu du emakumeek «sekulako bultzada» eman diotela klubari, eta hori «ikusarazi» behar dela. Argi dute beren jarduna ez dela etengo, eta gelditzea ez dela aukera bat. «Honek aurrera jarraitu behar duela argi dugu», esan du Abalek. 38 emakume horiek egiten ari diren bideak, gainera, oihartzuna izan du, eta Pasaiako Kirol Galan aitortza egin nahi dietela aurreratu dute, emakumeen kirola sustatzeko egiten ari diren lanagatik. Kirol Gala apirilaren 1ean izango da, 19:00etan, Donibanen. ■

Errenteriako euskal eskola publikoa

EGUNERO ETORKIZUN PAREKIDE BATEN ALDE LANEAN!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!

Bizarain ikastola
HH-LH 943-34 16 45 BHI 943-89 94 13

Cristobal Gamon HLHI
943-89 91 38

Cristobal Gamon BHI
943-89 94 41

KOLDO MITXELENA Herri Ikastetxea
943-89 91 87

KOLDO MITXELENA BHI
943-89 95 00

SARA DEL RIO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Otsailean heldu zion Sara del Riok (Donostia, 1996) Hondarribiko Udaleko Berdintasun teknikari izateko erronkari, konpromiso eta ilusio handiarekin. Berdintasun Planaren xehetasunak eman ditu.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

HONDARRIBIA

«Diagnostikoa Hondarribiaren argazki bat da»

Urtebete igaro da Hondarribiko Udalak Berdintasun saila sortu zuenetik, eta denbora honetan pauso sendoak eman ditu. Genero indarkeriaren kontrako protokoloa sortu eta Berdintasun diagnostikoa ondu dute, besteak beste. **Zertarako egiten dira Berdintasun Planak?**

Berdintasun politikak aplikatzerako orduan bide orri bat dira. Normalean, lehenik, testuinguruaren azterketa bat egiten da, kasu honetan diagnostikoa izango litzatekeena, eta hortik abiatuta hurrengo lau urteetarako plan bat egiten da. Bertan, zein ekintza burutuko diren, zein prozesu jarriko diren

martxan, eta plan hori martxan jartzen ari dela ziurtatzeko zein mekanismo erabiliko diren jasotzen da.

Zer jasotzen du diagnostikoa?

Berdintasun alorrean, Hondarribiaren argazki bat izan nahi du, batez ere, testuinguruaren zein den eta erronkak zeintzuk diren ikusteko. Uda hasi aurretik abiatu zen diagnostikoa. Farapi Kooperatiba aholkularitza enpresa kontratatu zen horretarako, eta beraiekin elkarlanean hasi zen udala diagnostiko honen diseinua eta etapak lantzen.

Alde batetik, datu kuantitatibo eta demografikoak aztertu dira: errentak, erroldak eta horrelakoak. Eta beste aldetik, datu kualitatiboaren bilketa egin

da. Hau da, elkarrizketa sakonak, talde elkarrizketak edota elkarrizketa fokalak egin dira. Horren bidez, arlo ezberdinetan egoera zein den aztertu nahi izan da: kirol munduan, kulturaren, osasunean... Adineko emakumeekin lan egin da, jatorri atzerritarreko emakumeengana ere hurbildu nahi izan da, nahiz eta ez den guztiz lortu, eta udal langileek ere parte hartu dute diagnostikoan, ikusteko transbertsalitate hori nolakoa den udalean.

Ez da dokumentu itxi bat, ekarpenei zabalik baitago. Zer esan nahi du horrek?

Irudikatu dugu hasieratik dokumentu dinamiko bat bezala, izan delako prozesu parte hartzaile eta kolaboratibo bat. Honek esan nahi du pixkanaka saiatu gairela deboluzioak egiten. Hau da, saiatu gara ahalik eta pertzepzio edo iritzi gehien barnebiltzen, eta berdintasun plana diseinatzeko egingo ditugun lan saio horiek baliatuko ditugu informazio trukea egiteko, eta, beharrezkoa balitz, oraindik jaso ez den ekarpenen bat jasotzeko ere.

Zein pausu emango dira orain?

Berdintasun Plana nola egin planteatu behar dugu orain. Lau ardatz planteatzen dira horren barruan: Gobernu Ona; Emakumeen Ahalduntzea; Gizarte antolaketa bidezkoa, berdintasuneko eta iraunkorra; eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitza. Beraz, orain egin nahi dena da ardatz horietako bakoitzean inplikaturik egon daitezkeen mugimendu feminista, emakume elkarte, herriko beste eragile edo klubekin bildu eta planaren inguruan





A. Mendizabal

hitz egiten hasi, neurriak ahalik eta errealean izan daitezten eta lotura izan dezaten Hondarribiko eragileek detektatzen dituzten beharrekin. Azken batean, beraiekin egin elkarlanean aritu beharko dugulako.

Hilabete honetan jarriko gara martxan eta ez dakigu plana noiz bukatuko dugun. Baina pentsatu nahi dugu urtea amaitzerako onartuta eta martxan edukiko dugula.

Zer sentsazio utzi dizu diagnostiko honek?

Pertsonalki oso baliagarria egin zait, duela hiru aste iritsita, ingurua hobeto ezagutzeko balio izan zaidalako. Eta gero, hutsune batzuk eta lan lerroak identifikatzeko balio izan digu. Diagnostiko honen ondorioetako bat izan da pobrezia Hondarribian emakume migratu aurpegia duela. Baina aldi be-

rean, ez dugu lortu emakume migratu taldeekin biltzea. Saiatu gara, baina ez dugu asmatu. Beraz, izan daiteke erronka bat. Beste datu esanguratsu bat errentarena da. Emakumeek jasotzen duten errentaren batez bestekoa 27.279 eurokoa da, eta gizonena 44.005

eurokoa. Gizarte zerbitzuetako erabilitzaileak nagusiki emakumeak direla identifikatu da, eta beraz, eremu zaurgarri bat dagoela ikusi dugu.

Alardearen eragina jaso al duzue diagnostikoan?

Bai, jaso dugu, baina ez zaio zentralitaterik eman. Herrian berdintasun politikak garatu ahal izateko erpin guztiei begiratu behar zaie, eta denak izan behar ditugu kontuan arlo guztietan eragin ahal izateko. Udalean badago beste eremu bat Alardearen gaia espezifikoki lantzen duena. Horrek ez du esan nahi ez denik neurririk abian jarriko edo beste planteamendurik egingo.

Berdintasun teknikari bezala, nola ikusten duzu afera?

Iruditzen zait azken urtean eman direla pausu garrantzitsu batzuk eta gustatuko litzaidake pauso horien norabidean lanean jarraitu ahal izatea emakumeek Alardean normaltasun osoz parte har dezaten. Bide horretan bidelagun izango naute. ■



Tokien izenetan ere, espazio bila

URKO ETXEBESTE PETIRENA

LEZO

Herrietako kaleen, plazen edo tokien izendegian gabezia oso nabarmen bat dago. Apenas daude emakumeen izenak dituztenak. Lezon ez ezik, Oarso Bidasoko nahiz Euskal Herriko udalerrri guztietan gertatzen da hori. Lezon erabaki dute lanketa iraunkorra abiatzea historiaren oso zati garrantzitsu izan diren emakumeei aitortza egiteko bideari eusteko, tartean kale izendegian horien presentzia areagotuz. Horren adibide, larunbatean Miren Gezala Sagarzazu plaza izendatuko dutela, Aralar kaleko etxe berrietan. Martxoaren 8ko manifestazioaren barruan egingo

dute izendapena, 12:30ean hasiko da martxa, Gurutze Santuaren plazatik. Ekarpen handia egin zion Lezori eta Euskal Herriari Gezalak, ahantzuran diren emakume askok bezala. Ondoko orrian ikus daiteke haren soslai.

Herriko mugimendu feministaren eskariz, eta udalarekin egindako lanketari esker hartu zen otsailaren 25eko Tokiko Gobernu Batzordean Gezalaren izena-abizenak Lezoko kale izendegian betikotzeko erabaki irmoa. «Lezoko mapan emakumeen errepresentazioaren defizit handia dago kaleetan eta horien nomenklaturan, herriko andreak esparru publikoan jasandako



Elkarlanean antolatu dituzte Martxoaren 8koak Lezon. Horien aurkezpenarena da irudia. HITZA

bazterketa historikoaren adibide da hori», adierazi du Lezoko Udalak.

Gezalari aitortza egiteaz gainera, Eneritz Arruti Osanbela Berdintasun zinegotziak adierazi du emakumeei kale izendegian presentzia izan dezaten ahaleginean direla, egun izenik ez duten kaleko esparruetan batez ere eragiteko asmoa azalduz, «eta izena duten espazio batzuei, agian, izena aldatzeko garaia iritsiko zaie».

Liburutegian, Txoko Feminista

Lezoko Martxoaren 8aren lanketaren harira, Gezalarena ez da izango irabaziko den espazio bakarra. Hilaren 28an Andreone Udal Liburutegian Txoko Feminista inauguratuko dute (19:00etan),

la * coquine Dekorazioa eta altzariak

f La coquine deco i lacoquinedeco

Foruen plaza 20, Errenteria - 943 90 57 74 - 610 32 54 16

gora borroka feminista

LANDARE

@landare_herrikotaberna

PASAIA - LEZO LIZEOA

Bide bat elkarrekin

GIZARTE PAREKIDEA ERAIKITZEN, EGUNERO



MIREN GEZALA SAGARZAZU

IRAKASLEA ETA EUSKALTZALEA

Emakume abertzale, euskaltzale eta konprometitua

Nere Loiola Pikazaren *Zebrak eta bi-deak* liburuaren aurkezpen eta guzti. «Emakumeekin harremana duten liburuak jasoko ditu, eta gainera, liburuen erosketa bat egin da txokoa osatzeko», esan du Arrutik. Zinegotziak goretsi du mugimendu feministarekin eta Berdintasun teknikariarekin batera landu dutela txokoaren egitasmoa, «elkarlana ezinbestekoa da». Hala, Berdintasun Kontseilua osatzeko prozesu betean direla gogorarazi du, data seinalatuez aparte, feminismoa egunero udalaren atal guztietan presente izan dadin.

Plaza bat, liburutegia, eta gehiago. Emakumeek Koldobide Gezala pilotalekua bere egingo dute ere eguntan, eskuzko pilotako txapelketarekin; Martxoaren 8an, berriz, herriko korrikalariak Lezo harro zeharkatuko dute. Espazioak irabazteko borroka martxan da Lezon. ■

Miren Gezala Sagarzazu (Lezo, 1912-Oiartzun, 2003) irakasle eta batez ere euskaltzale sutua izan zen. Bederatzi anai-arrebetatik bosgarrena, 18 urterekin Donostian Irakasletza Ikasketak egin zituen, eta

eskolak emateko baimena jasota (21 urte zituela), herriko lehen ikastola sortu zuen 1930ean, plazan. Gauez, herriko helduei euskarazko klaseak ere ematen zizkien. Eskolak ematez gain, Emakume Abertzale Batzako militante izan zen, eta hizlari bezala ere aritzen zen han eta hemen, betiere euskara eta euskaltzaletasuna ardatz. Dantzaria eta antzerkilaria ere izan zen, mendizale izateaz gainera.

1936ko gerragatik Ipar Euskal Herrira erbesteratu zen, familiak Lezotik alde egin behar izan zuen. Koldobide Gezala ahizpa raketista Salamancan jaso, eta bide luze baten ondotik Donibane Garaizira joan ziren. Han, iheslari zirenei ere eskolak eman zizkien. Tarte horretan, «Probintzia Baskongadetatik» 150 kilometrorra bizitzeko debekua ezarri zioten.

1950ean itzuli zen Gipuzkoara Miren Gezala. Irakasle izaten jarraitu zuen. Hainbat herritan irakasle aritu ondoren, Donibane izan zuen azken lantoki erretiratu arte. Bere bizitzako azken hiru urteak Oiartzungo adinekoen egoitzan egin zituen. ■

Kale nagusia, 2.
20100 LEZO
Tel.: 943 52 92 44



OGITARTEKOAK:
- tortilla
- urdaizpikoa

PINTXOAK:
Hotzak eta beroak

SAHATSA
Taberna



• Haur eta helduentzako
Terapia Estrategiko Laburra
• Banakako, bikote, eta familia terapia



JAKOBE PSIKOTERAPIA
620.12.24.29

Jakobe Bafanero Álvarez
Psikologoa GZ1579
Xenpelar kalea 6, solairuartea,
5. bulegoa. Erreterria
www.jakobepsikoterapia.com

LEZO AGENDA **kulturala**



ANTZERKIA //////////////////////////////////////

9 MARTXOAK 9, igandea, 19:30ean. Gezala Auditoriuma.

FEMINISSIMAS

Nerabegaroko hiru adiskide, hainbat urtetan elkar ikusi gabe egon direnak. Hiru adiskide, "feminismoa" ulertzeko oso desberdinak diren hiru modu dituztenak: feminismo erradikala, feminismo liberala eta post-feminismoa.

De Ste Xeito produkzioak. **SARRERA 8 €.** Gazteleraz





Infomaitemindu ➔

Bidali 

ALTA 747 444 777

zenbakira eta jaso
Gipuzkoa eta
Foru Aldundiari
buruzko informazio
garrantzitsuena.



 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia

Tknika

Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatuko Zentroa
Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi
Basque VET Applied Research Centre

Tknikan ere, EMAKUMEAK GORA!

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Fp

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



MARTXOAK 8

**HITZ
GEZIDUNAK**



	Gauzka		Barrua		Maripulisa		Musika nota		Ergela
	Zapataria		Behar handia		Titanioa		Eritegi		Albisteak, berriak
	Grina, nahi bizia							Errusiako ibaia	
	Denboralea							Azkena eta lehena	
Eragiketen ondorioak		Moztu			Ganibet, laban				
Andrazkoa, emaztea		◆ Irudiko faktoria			Aza mota				
						Sotoa			
						Hegaztien aholagar			
Edo			Joan den urteko					Kontzo-nantea	Esaten ari nintzen
Ez militarra			Itsaskor, likatsu					Kontzo-nantea	
					Aurre				
					Bokala				
Eskaini eta ez eman				Zumintz				Atx!	
Gozoki izoztu				Goratu, goititu				Suitzako ibaia	
					Bokal biribila		Giltza		
					Ez eme		Radona		
Alaitzen duena									Bokala
Bizkaiko ibaia									Bokal biribila
			Zer pertsonaren?				Edari bizi		

Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik **688 77 07 52** zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), **denborapasakobh@hitza.eus** helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo **OARSO BIDASOKO HITZAKO bulegora** (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. **Epe muga:** datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

SUDOKU

1-9 zenbakiak idatziz, bete itzazu 9x9 laukian hutsik dauden gelaxkak, kontuan zanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen ilara eta zutabe berean, ez eta dagokion 3x3 laukian ere.

			2			6	4	5
			8				9	7
		2	7				8	
	8	3						
7								3
					9	1		
	3				9	4		
2	4				6			
5	7	9			4			

**OTSAILAREN 28ko
ASTEKARIKO
DENBORAPASEN
ERANTZUNAK**

L	O	T	U	N	E	A	K
L	E	K	U	O	N	A	
L	E	U	N	A	K		
L	E	K	U	A			
L	A	K	U				
L	A	U					
U	R	A	L				
L	A	R	U	A			
L	A	R	R	U	A		
B	U	L	A	R	R	A	
L	A	B	U	R	R	A	K

GOITIBEHERA

**HITZ
GEZIDUNAK**

■	■	■	■	A	■	I	■	U	■	A	■	E	
■	■	■	■	E	L	E	B	I	D	U	N	A	K
■	■	■	■	A	T	A	B	A	L	A	R	I	
■	■	■	■	B	M	I	S	I	O	■	■	M	
K	A	B	I	N	A	■	N	A	Z	A	K	E	
■	L	A	R	■	I	L	■	L	A	■	A	N	
P	A	S	A	I	T	A	R	■	M	E	■	■	
■	K	O	R	T	A	B	I	T	A	R	T	E	
Z	A	L	I	■	S	A	G	A	R	R	A	K	
■	T	A	■	D	U	N	A	■	R	A	■	I	
T	U	N	T	U	N	A	■	G	A	Z	T	A	



OARSO BIDASOKO HITZA
Irun kalea 8, behea
20100 (Errenteria-Orereta)



HITZAKIDEen
TXOKOA

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 85€

DENBORAPASAK



ASTEKO SARIA MAHALAREN PRODUKTUEN SASKIA

Mahala Baserria - Leaburu.
info@mahala.eus
www.mahala.eus



**AURREKO ASTEKO
SARIDUNA
KARMELE URTXULUTEGI LASA**
Aldako txakolindegiko 3 botilako kutxa.
Aldako Etxea, Gurutze bidea 7 - Oiartzun
bodega-aldako.negocio.
sitecentros/oartzun



Kultur emanaldi guztietarako sarrera bikoitza
ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN



HILABETEKO ZOZKETA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **61**

LEITZARAN FERRATA BIDEA

Lagun batentzat sarrera.

www.leitzaran-andoain.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **62**

LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g
- DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **63**

EKAINBERRI MUSEOA

HISTORIAURREKO ESPERIENTZIA KONPLETOA.

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

943-86 88 11
ZESTOA
ekainberri.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **64**

URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkarte
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
699 839 202
urdaibai@birdcenter.org
www.birdcenter.org

Zozketan parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefonora edo sartu gure webguneetako HITZAKIDE TXOKOA atalean, martxoaren 24a baino lehen. Saridunen izenak martxoaren 28an argitaratuko ditugu.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitetz HITZAKIDE!

Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.



Martxoak 7: Bertso Afaria, Aissa Intxausti eta Miren Artetxerekin

Martxoak 8: Emakume korrikalariak, manifa, Miren Gezala plazaren inaugurazioa, brindis feminista eta Koldobike Gezala pilota txapelketa

Martxoak 9: Feminissimas, antzezlan

Martxoak 15: Zineforuma

Martxoak 28: Liburutegiko atal feministaren aurkezpena eta liburu aurkezpena